

# EIBARTAR ZELEBRIAK

## VI

### OJANGUREN FOTOGRAFUA

Aintziña asi zan Indaleki Ojanguren D'Agerre'ren artetik bizi izaten. Izan be, eibartarrik geienak bezela, zirt edo zart eitzeko gizona da Indaleki. Fotografiaren etorkizuna illun egoan artian, orretara itzuli zan buru-belarri gure gizon au.

Gaurko teknikak benderatu barik egozen denporan, fotografiaitzeko makiñak ez euken oingo aukerarik nai zan moduan ataratzeko. Orregaitik, «anpliadora»-rik ezautzen ez zan denpora aretan, Madrilgo «ABC»-koak arrituta euazen Ojanguren'ek ataratzen zituan erretratu ederrekin. Eibarren bertan asmautako teknikaren bat edo ezarri ete zetsan, «ABC»-koak bialdu eben euren fotografu ezaguna zan Duque jauna.

—Zelan konpontzen zara zu pelotariak naiz foballistak olako ondo ataratzeko?

—Tripodiakin.

Bera bakarrik zan artian, naiz pelota partidua edo naiz fobail jokia, gelditzen zitxuana bere erara fotografiatzeko.

\* \* \*

Ojanguren'entzat dana izan da interesantia. Berak erretratau ez dabenik ez dago. Horacio Sarasketa'k bere lapiz azkarrakin karikaturia egin zetsanian, azpikaldian au ipiñi zetsan: «Onegandik guztiok pasau giñan».

Bai. Ala da. Eibartar guztiok gaitu bere artxibuan, aldeko ta kontrako, kolorieri begiratzeko: bautizuan, komunio nausian edo ezkon-tzan ez bada, karneterako erretratuan, Aste Santuko prozesiñuan edo aratostietan izango da.

Era batian, sarri ebillen Bizkaiko errietan elizak, torre-zarrak eta abar. Leku askotan aitzen emoten zetsen beste jaun bat be baebillela era-bereko fotografiak atarutzen. Lelengo aldiz agertzen jakon kompetenziako bat. Emoten zetzezen aztarranetatik, errena ei zan. Ta, egun baten or nun agertzen dan, Eibarko bere estudiora, tajura, aretako gizon bat. «Emen dok nere kontradixua», esan eban Indalekik berekautan. Ta, igarri. Bera zan. Jabier de Ybarra jauna, *Catálogo de Monumentos de Vizcaya* eitxen ebillela. Ybarra jaunari be berdintsu gertatzen jakon; zoian leku guztietan berba eitxen zetsen eibartarragaitik, eta ezagutzeko asmuz joan zan. Zorionezko ezagutza izan zan bientzat. Ojanguren'ek bere artxibua erakutsi zetsanian, arrituta esan ei zetsan Ybarra'k: «Sinistu ezindakua da eiñ dozun biar guztia!». Ta, Ojangurenen erantzuna: «A!, da zenbat biar eiño neban nik biarrik eiñ biarra izan ez baneu».

\* \* \*

Negoziuan barriz, zintzua. Ez eban geiagorik emongo, ezta gutxiagorik artu be.

Bein, bezero bati, kontuak zuritxuaz: «Kanbixuak eitxeko ez jaukat errialbikorik. Autsa pezetia ta ekak errialbikoa».

—Neuk be ez daukat baiña errial birik.

—Orduan, zer eiñ?

—Artizu zeuk pezetia, ta urrenguan emongo destazuz errial biak.

—Baiña, ni aztuko nok, ta iri emoten ba deuat be i aztuko aiz.

Ta, ara, kara-kurutz eiño juagu ta kitto.

Ola erabagitzen ekian kanbio kontua.

\* \* \*

Ba ziran baiña erabagirik ez euken gauzak be. Pobria aberastu leike, ta aberatsa pobretu; baiña zatarrari... zer? Zirujia-estetikaririk ez eguan denporan zer?

Bere kulpaz ez bada be, polita ez zan neskatilla bat erretratu eske juan zan batian; ikusi zitxuanerako esan zetsan: «Ene! Ojanguren; zelako zatarto atara nozun».

—Ez uste makiñian faltia danik. Emen ez dago tranparik.

\* \* \*

Tola de Gaytán markesak sarri eskribitzen zetsan alako edo ola-ko eskudoren fotografia eskatuz. Elizgizon ta titulodunentzat alerjia eukan eibartar adarjotzaille bat enterau zanian, esan zetsan:

—Konke, euk pe markesekin da tratatzen duala e?

—Nik ez eurekin. Eurak nerekin.

Ojanguren gauzegaz ezerekin ez naiz arritzen. Urte batzuek dira, zazpigarren eun mendiko konkursoa amaitxu ebala ta, artikulua bat egin neban bere zenbait gauza kontauaz. Nik *La Voz de España*-n argitaratu ta andik egun gutxira beste periodiku batzuetan etorren, nere baimenik barik, baiña gatz-ozpinduz. Orduantxe bai benetau sinistu nebala «Fotografo Aguila» zala, askok ola apropos deitzen ba zetsen be. Ba, bere egaztada ez zan gelditzen, periodikutik periodikura ebillen; gelditzeke. Euren aria galdu neban. Andik denpora askora be, erriko-seme aiskide batek ekarri estan Madril'go *7 Fechas*, artikulua berari konponketa dotoriak eiñ da. Ez dakit ega luziak ala ainbeste aldaketak, lumok ondo aldatu etsezen gure «arranua»-ri, ainbestian eze, *7 Fechas*-en erretratu ordez dibujua ekarren. Ta, zelakua? Ojanguren mendi punta batian, gure «Fotografo Aguila»-ri tokatzen jakon moduan, baiña buruan kordobesen kapelia eroiala, herak erabiltzen daben txapelaren ordez.

\* \* \*

Orrek ikusita ezerk ez nau arritzen.

Oraindik ixa mutiko bat nintzan Eibar'ko Club Deportivo'an mendizaleen sailleko karguan nenguala. Illuntzi batian eldu zan nere eskura konkursurako aitzen emoteko eskribitzen diran papel orretariko bat. Ojanguren'ena zan. Astean Urko puntara igo zala-ta. Alperrik izan fotografua libertade askoko ofiziuua, eibartarrentzat beti izan da sagraua astegunian egunerditxo bat biarrera barik galtzia. Orretan, or nun sartzen dan Ojanguren bera. «Zer, Indalezio, astegun buru-zurixan be Urko'ra?»

—Bai; Ermura jua biarra najeukan ta bide-batez Urko puntara igo najuan.

Ori entzun da, zelan ez sinistu ega egiteko be gauza zala?

\* \* \*

Gaiñera, ez da poliki ibiltzen danetarikua. Beti, okerkerixia eiñ da anka-jokuan doian mutiko baten bare, prixaka.

Untzagako plazatik ola zoian batian, bere edade inguruko agura batek esan zetsan:

—Ikasik polikixago ibiltzen!

—Euk ikasik bixkorrago ibiltzen!

\* \* \*

Berriz, baztarrik ba ete da bera eldu bakorik? Ez Euskalerrian. Sarri pasau ditxu gure mendiak, alde batetik eta bestetik oiñaz. Ain-

besterañok eze, ez da posible bera iñork ezautzeka pasatzia. Berakin ibilli garanok ondo dakigu ori.

Bein, Aramaixo'ko Gantzaa auzuan, bertako basarritarregaz berba alditxo bat egin ondoren, izketan Eibar aitxatu zalako edo, atso zartxo batek esan zetsan dirala urte asko ibilli zala an beste eibartar bat pe fotografiak eta atarutzen; eibartarra Ojanguren zala. Zelan ez zan arritxuko atsotxua, esan zetsanian bera zala Ojanguren. Orduan, andriorrek esan zetsan: «Baiña, zu ez zara izango aintziñako Ojanguren; zu, aren semeren bat izango zara».

\* \* \*

Bein, «La Voz de España»ko redaziñora eldu zan paketetxo bat. Zafra'tik etorren. Antiaju batzuk ziran Guadarramako mendietan billautakuak, ta antiaju azalian «Eibar» ipintzen ebalako, beste barik, «La Voz»-era bialdu zitxuen Ojanguren'en izenian. Usterik beste iñor ezin zeikiala izan inguru aretan ibilli zeikiana. Ta, egia zan, iru aste aurretik an galdu zitxuan bere antiajuok.

\* \* \*

Bein, jakin eban Arantzazun prozesiñua eguala ta China'tik etorri barri zan Aranburu obispua be an izango zala. Juan zan, okasiñua aprobetxatzera fotografia berezi bat ataratzeko (fotografia «ale takua» Ojanguren'en argoterako). Baiña, osteria aprobetxauaz, mendiren batera igo biar ba, ta juan zan Aizkorriko gaillurrik goretako batera. Bueltzan, arratsalde erdian, prozesiñuori ixa akabauan billau eban. Obispua aurretik zala, bere jantzi apain guztiekin, elizarutz zoiazen. Denporarik ez eukanez, prozesiño guztian aurrekaldian ipiñiaz, esan eban: «Alto!». Ta gelditu zitxuan. Gero, bere komenentzietara fotografiek atara ondoren: «Aurrera!». Agindu zetsen. Olako «aita santurik».

Baiña, guztia ez zan or amaitxu. Donostiako doctor Bidaur —lenago «Montañeros Vetustos»-ko mendizalia izana— China'ra misio-nero juan zanian, ta periodikuetan ekarri Aranburu'k egin zetsan sortaldeko lurretan buenajeria. Ez bat eta ez bi; Ojangurenek alkarri eskua emoten ipiñi zitxuan ta, egun gutxira, «La Voz de España»k ekarren: «El doctor Vidaur, recibido por monseñor Aramburu, en China. Foto Ojanguren.» Bidaur mendizale jantzita, jersiagaz ta esku batian makillia ebal, ta, Aranburu, dotore mitra ta bakuluagaz.

Ojangurenek ez eukan tele-foto ta tele-bisiño biarrik.

JUAN SAN MARTIN.